

FADEK
ileapaindegia
solarium
Jai alaiak opa dizkizuegu
bezero eta lagunei
"Irailaren leian irekiko dugu"
Errosario kalea, 35 behea - 20870 ELGOIBAR - Tel.: 943 74 26 92

PITXINTXU
Tel./ Faxa: 943 74 32 06 • ELGOIBAR

EXEPE MEKANIZATUAK
LAN BEREZIAK
Ibaitarte kalea, 2 • P. K., 153
Tel.: 943 74 12 97-943 74 06 64
Faxa: 943 74 43 21
e-mail: etxepesa@stf.logiccontrol.es
20870 ELGOIBAR

bire ELEKTRONIKA
ELEKTRAGAILUAK
Ubitarte, 11 • Tel.-Faxa: 943 74 14 87 • 20870 ELGOIBAR

Idoia Arrillaga
PODOLOGA
IBILTZEN
ZENTRU PODOLOJIKOA
CPI
Ubitarte Plaza, 11
Tel.: (943) 743 656
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

URZELAI
ELEKTRIZITATEA ARGITAZPENA
Santa Ana, 12-14 • Tel.: 943 74 13 76 • Mug.: 608 77 40 32
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

DEKORAZIO ALTZARIAK
Iriondo
Proiektu eta erreformak,
gremioen zuzendaritza
Santa Ana, 4-6 • Tel.: 943 74 12 34
ELGOIBAR - GIPUZKOA

JULIO BUENO ARDOAK
• Ardo eta likoreen biltegia
• Patatak handizka eta txikizka
• Etxez etxeko banaketa
• Bakailaua eta esnea
Rosario, 3 - 943740237 - Etxekoa: 943741963 - ELGOIBAR

AROSZTEGIA
SORALUZE
ALUMINIO • POLIURETANO • PVC
ERAKUSKETAK
Santa Ana k., 3
Tel.: 943 74 36 34
20870 ELGOIBAR
LANTEGIA
Olasope k., 66
Olaso Industrialdea
Tel./ Faxa: 943 74 21 03
Goikokale, 16
Tel./ Faxa: 943 81 02 74
20370 AZPEITIA

OLATZ, S.I.
ALTZARIAK
BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:
Pedro M. Urruzuno kalea, 8 - Tel.: 943 74 38 44
ELGOIBAR

Elgoibar

Agur eta mila esker

Mausitxak, Iriondok eta Sarasuak utzi egin
dituzte euren karguak • Elgoibarrek
omenaldi bero batekin esan die agur hirurei

HIRU elgoibartarrek utzi dute beren taldeetako zuzendari postua aurtan, eta horrek eragin izan du herriko taldeak suspertzeko garaian.

2000. urtea historikoa izango zela bagenekien, edo hala zioten askok behintzat. Baina inork gutxik espero zuen Elgoibarren agurren urtea izango zenik. Agurren

urtea diogu, aurtan 3 elgoibartarrek utzi baitituzte zuzentzen zituzten 3 talde.

Jose Inazio Sarasuak Haritz Euskal Dantzari Taldea laga du, Jose Alberto Ansola Mausitxa-k bere izena daraman txaranga eta Pako Iriondok Euskal Mendizale Federazioa. Agur esan diete taldeei eta ingurukoei, eta herriak beraiek agurtu eta


omendu ditu urteetan egingako lana eskertzeko.

Hazia utzi duten zuzendariak

Zuzendari lana beste batzuk hartu dute, baina beren urte-etako lana betiko geratuko da elgoibartarren gogoetan; halaxe erakutsi dute egindako omenaldiek.

Pako


Iriondo



Mendiari lotuta ezagutu dugu beti Pako Iriondo. 78 urteko gizon hau Elgoibarko Morkaiko Mendizale Elkarteko bazkide sortzaileetako bat izan zen. 18 urte eman ditu Euskal Mendizale Federazioko presidente karguan. 1999ko azaroaren 5ean ohorezko lehendakari izendatu zuten, eta urte hauetan mendizaleek eta ezagutu dutenek eman dioten maitasuna eskertuta esan zien agur guztiei. Jendeak asko maite du Iriondo, eta berak mendia maite du, ikaragarri, gainera; orain mendiaz lasai disfrutatzeko aukera izango du. Lagunak egin eta galdu ditu mendian, baina Pako Iriondok mendia izan du bizitzako bidela-gun.

Jose Alberto

Ansola



Mausitxa txarangak jartzen die musika Elgoibarko San Bartolome jaiei, besteak beste, eta Jose Alberto Ansola txarangako zuzendaria ez ezik, taldeko arima ere izan da urte askotan. 48 urte txarangaren buruan eman ostean, aurtengo jaiak amaitzean agur esan die taldeko gainontzeko kideei eta baita herri-tarrei ere. Bere asmoa hasi bezalaxe isil-isilik bukatzea bazen ere, Txiki Eguanean herri-tarrek eskaini zioten txalo zaparrada izugarria izan zen. Mausitxa ez dugu berehalakoan ahaztuko. Txaranga beti izango du bere sortzailearen ukitu berezia, eta datorren urtean ere izango da Mausitxaren doinurik jaietan, eta bera ez da urruti ibiliko.

Jose Inazio

Sarasua



Jose Inazio Sarasua Haritz Euskal Dantzari taldeko zuzendaria izan da aurtan arte, 16 urtez. Txistu doinua lagun, dantzarien pausoak gidatzen ezagutu dute elgoibartarrek ez ezik baita dantza mundua gertutik bizi dutenek ere. Urrian agurtu zuen taldea, zituen konpromisoak amaitzean. Lagun asko eman arren, denbora kendu dio Haritzek, eta orain, denbora familiarri eta bere buruari eskainiko dio. Jaietan, San Bartolome eguneko Soka Dantzaren ondoren omenaldi xumea egin zioten taldekideek, eta bere lana eskertu. Agur esan dio zuzendari lanari, baina oraindik Haritz dantza taldearen arrimuan ikusiko dugu sarritan Jose Inazio Sarasua.